

Gogoan hartu damutu baino lehen

Zure artekariak beti emango dizu informazioa... Ez bazaude seguru, bila gaitzazu

«Autonomoak dira protagonista nagusi, enplegua sortzeari dagokionez»



Langile Autonomoen Federazio Nazionaleko presidente Lorenzo Amorren hitzak dira.

Jakin behar duzu autonomia bazara gure herrialdeko ekonomiaren suspertzearen protagonista zarela. 2011ko abendutik 2015eko irailera, 238.617 enplegu zuzen sortu dituzue (96.113 autonomo gehi autonomo horien 142.504 soldatapeko); edo, beste modu batera esanda, zuen enpresa-ekimeneraren fruitu dira 3 lanpostu berritik 2.

Diotenez, odol berezia pasatzen da autonomoaren zainetatik, transfusiorik behar ez duena; izan ere, ez zarete sekula gaixotzen. Ez dituzue behar, ezta ere, gainerakoek behar dituzten oporrak, eta ordutegirik gabe egiten duzue lan, bezeroak ongi artatzea baita garrantzitsuen.

«Freelance»ena da etorkizuna»

«Lanik gabe geratu nintzen, eta ez nuen lanik aurkitzen, asmatu egin behar izan nuen».

«Enpresa askotako soldatak eskasak dira,

eta esklabo bihurtzen zaituzte».

Spainian, autonomoak dira buru «enpresa-iraultza» berria. Gehienak borrokalariak zarete, egunero betetzen dituzue zuen betebeharrak, eta aseguru-artekariok, enpresari garen artean, zuen ahalegina eta dedikazioa balioztatzen ditugu. Aseguruen sektoreak ulertzen ditu zuen kezak eta beldurrak; horregatik, babestu egiten zaituzte Erantzukizun Zibil, Ezbehar, Laneko Baja, eta Erretiro aseguruekin, besteren artean; zuen egunerokoa arinagoa egin eta bestela aurkituko ez zenuketen lasaitasuna ematen dizute.

Autonomo agurgarri hori:

Eskerrik asko gure herrialdeagatik egiten ari zarenagatik.

Badakit bakarka lan egiten duzula, kexarik eta arrangurarik gabe, zalantzak behar bezala kudeatu eta hazten eta hobetzen lagunduz.

#E2K
BROKERNET
Aseguru Artekarien
Sare Nazionala

Hileroko buletina
Nº 33 / Azaroa 2015

«Etorkizunera itzulera»

Zer duzu nahiago, urrezko pentsioa edo depresio pentsioa? Hasi kontuak ateratzen eta erretiratu ondoren zenbat diru geratuko zaituzen begiratu. Aztertu nahikoa izango ote den, hartu erabaki bat eta jokatu ondorioz.

Zergatik aurreztu?

Gizarte Segurantzaz gero eta ahulagoa da. Kotizatzen dutenak babestea da horren funtzioa, erretiratzen direnean diru-sarrerak bermatzea. Gizarte kotizazioen bilketarekin finantzatzen da.

Baina... zer gertatzen da?

Langabeziak murriztu egin dituela Gizarte Segurantzara egindako ekarpenak.

Spainian, bikoiztu egin da 65 urtetik gorakoek kopurua, 30 urte baino gutxiagoan. Eta gero eta haur gutxiago jaiotzen dira. 1975. urtean, familiek 3 seme-alaba edukitzen zituzten batez beste; gaur egun, berriz, apenas heltzen diren 1,2ra. Horrek esan nahi du etorkizunean pertsona gutxiago ariko direla lanean.

Nahiz eta carpe diem egin, zuhurtziak aurre hartzea, gai horren inguruko adituon aholkuak jarraitzea eta zure neurriko aurrezki-plan bat prestatzea gomendatzen digu.

3 aginduak

1. Zure adinaren arabera, gehiago edo gutxiago arriska dezakezu, bizitzan bezala. Gazteek gehiago egiten dute apustu; helduak kontserbadoreagoak dira.

2. Hobe duzu hilero-hilero diru-kopuru zehatz bat ordaindu. Baina ez baduzu ezertxo ere aurreztu, oraindik, azkar ibili, urtea amaitzeaz baina.

3. Ongi aztertu nori uzten diozun zure diruaren zaintza. Aseguru-artekariok konpainia kaudimendun, errentagarri eta zintzoekin bakarrik egiten dugu lan. Bakar batek ere ez digu «sustorik» eman iragan urteetan, baina bankuren batek edo bestek bai.

Markatu helburu bat, zure diru-erreserbak eguneratzeko eta bermatu zure ongizatea.



Eskiatzea hau eta askoz ere gehiago da



Diegok aste osoa darama gastuak egokitzen, larunbatean eskiatzeko luxuaz gozatzeko. Eski denboraldia hasten denean, elurretarako grina pizten zaio, iazko denboraldian Espainiako eski-pistetetan gora eta behera ibili ziren 5 milioi pertsoneri bezala.

Intermundialen azterketa baten arabera, 2013-2014 denboraldian, gaixotasun edo istripu baten ondoriozkoak izan ziren eski-pistetako intzidentzien %53. Aberri-ratzea 2.000 euro kostatzen da, herrialdean bertan egin behar bada; atzeritik egin behar bada, berriz, 6.000 euro edo gehiago. Gastuak eskiazaileak berak ordaintzen ditu.

«Paradisurako pasaporte»

Diego orain 5 urte hasi zen eskiatzen, Idoia ezagutu zuenean; eta lehenengo egunetik bertatik, **paradisurako pasaporte** deitzen dutena kontratatu zuten: **euren eski-asegurua**. Garrantzitsua jotzen dute ezbehar kasuan ongi babestuta egotea, eta Erantzukizun Zibila, pistako erreskatea, osasun laguntza eta osasun gastuak estaltzen dituen aseguru ere badute.

Behin, beste pertsona baten kontra jo zuen Diegok. Zorionez, ez zen ezertxo ere gertatu, baina istripu asko diru-kopuru handiak kosta daitezke. Eta beti ezin da diru-kopuru handi horiei aurre egin. Diegok badaki beretzat ez ezik beste pertsonentzat ere arriskutsua izan daitekeela kirol hori, eta istripua eragiten duenak egin beharko duela besteri eragindako kalteen gastuen kargu.

Idoia bere buruaren ongizatea bermatu nahi du, minik hartuz gero; izan ere, badaki eski-estazioan istripurik edukiz gero osasun sistema publikoa ez dela gastuen kargu egingo eta aseguru pribatu bat ere salbuetsita egongo dela segur aski. Eski-aseguru batek, ordea, edozein ezbehar estaltzen du.

Ohikoa eta noizbehinkakoa; eskiazaileak aseguru batekin babestu behar du bere burua, nahiz eta egun bakar batean eskiatu. Ondoren... goza dezala mendi tontorretako isiltasunaz eta elurretan labaintzerakoan taulek egiten duten soinuaz .

Uholdeak eta Aseguru Partzuergoa



Urriaren amaiera oso gogorra izan da Kanarietan. Hil horren 20tik 24ra, euriteek 2.100 ezbehar eragin dituzte etxe, saltoki, industria eta 500 autotan. Hori guztia 7,5-8 milioi euro kostako da.

Aseguruen Konpentsazio Partzuergoak 30 peritu tasatzaile bidali ditu bertara, asegurudunen eskaerei erantzutera, aseguru edukiz gero jokatzen baitu Partzuergoak.

Andaluzian, 2,3 milioi euroko 500 ezbehar eragin ditu eurriak. Hamalau peritu ari dira lanean bertan.

Campofriok 313 milioi jasoko ditu aseguruetatik

Enpresa bat ongi babestuta badago, aseguruek funtzionatu egiten dute. Campofriok 243,8 milioi euro jasoko ditu kalteen eta izakinen galerengatik, eta 68,9 milioi, jarduera eten izanaren ondoriozko galerengatik.

Burgoseko fabrikari 2014ko azaroaren 16an izandako sutearen kalte-ordainak dira. Horren Urteroko Kontuetan, polizek «aurreko fabrikaren pareko edukiera edukiko duen fabrika berri bat egitearen balioa» estaltzeko aukera emango diotela jotzen du fabrikak.

Halloween eta Santu Guztien Eguna direla-eta



luz, hildakoen %62ren (245.629 pertsona) hiletak ordaindu zituzten heriotza-aseguruek. Espainian, 20,9 milioi lagunek dute kontratatuta poliza, eta 753 milioi euro ordaindu ziren 2014. urtean.

Oso une tristeak dira edozein familiarentzat, eta ongi hartzen da laguntza guztia, ez baitago indarririk paperez arduratzeko; hala, aseguru arduratzen da horretaz guztiaz eta, egoera horretan, horixe da heriotza-aseguru on batek eskaintzen dizun gauzarik baliosuena.

Ikerketa

CANAPYLLIC / Shutterstock.com

Depósito Legal M-41589-2012
Editia: E2000 Financial Investments S.A.